



ATAUNGO UDALA

2022ILAN0003

**ADMINISTRAZIO OROKORRA ESKALAKO ADMINISTRARI LAGUNTZAILE AZPIESKALAKO plaza lehiaketa bidez hornitzeko hautaketa-prozesuan onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda, merezimenduak egiaztatzeko epea eta Epaimahai Kalifikatzailearen izendapena.**

Alkatearen 2023ko uztailaren 10eko Ebazpenaren bitartez, Ataungo Udaleko administrari laguntzaile plaza merezimendu-lehiaketaren bidez hornitzeko hautaketa-prozesuaren oinarri orokorrak eta espezifikoak onetsi ziren (2022ko abenduaren 19 Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 238. zk.).

9. oinarri orokorrean ezarritakoarekin bat etorritik, hautaketa-prozesu horretan parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea eta akatsak zuzentzekoa amaituta, Alkatetzak ebazpena emango du onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrendak onesteko. Ebazpen horretan, autobalorazioaren inprimakian lortutako puntuazio osoa eta alegatutako hizkuntza-eskakizuna ere jasoko dira. Zerrenda horiek beherantz ordenatuko dira, guztizko puntuazioaren arabera, puntuazio handiena duten izangaiei alegatutako merezimenduak egiaztatzeko eskatze aldera (8. eta 10. oinarri orokorrak).

Bestalde, kudeaketa-gomendioa formalizatzeko Gipuzkoako Foru Aldundiarekin sinatutako hitzarmenaren hirugarren klausulari jarraikiz, hark Epaimahaiaren parte hartzeko proposatzen dituen pertsonak jakinarazi ditu. Beraz, ebazpen honetan bertan izendatu behar dira, bigarren klausulan eta 17. oinarri orokorrean aurreikusitakoa betez.

Horregatik guztiatik, alkate honek

## **EBAZTEN DU**

**Lehenengo.-** Ataungo Udaleko ADMINISTRARI LAGUNTZAILE plaza merezimendu-lehiaketa bidez hornitzeko hautaketa-prozesuan onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda, ebazpen honen I. eranskinean jasotakoa, onestea.

**Bigarren.-** Ebazpen hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengotik hasita 10 egun balioduneko epean parte hartzeko eskaeran alegatutako merezimenduak egiaztatu ditzatela eskatzea II. eranskinean zerrendatutako izangaiei.

Horretarako, udalaren egoitza elektronikoaren LAN ESKAINTZA atalean eskuragarri dagoen «Merezimenduak egiaztatzea» inprimaki elektronikoa erabili beharko dute.

Errekerimendu honek ez du aurrez juzgatzen aipatu pertsonen alegatutako merezimenduen egiazkotasuna, horiek egiaztatzea eta baloratzea Epaimahai Kalifikatzaileari baitagokio.

Oinarrietan aurreikusitakoaren arabera ofizioz egiaztatu ezin diren merezimenduak egiaztatzea eskatuko da bakarrik.

Parte hartzeko beharrezko gisa eskatzen den hizkuntza eskakizuna egiaztatua ez duten eta merezimenduak egiaztatzeko eskatu zaien pertsonen kautela moduan aurkeztuko dituzte



**ATAUNGO UDALA**

2022ILAN0003

egiaztagiriak.

**Hirugarren.-** Ondorengo hauek Epaimahai Kalifikatzaileko kide izendatzea:

*Mahaiburu titularra:* Ainhoa Iriondo Odriozola; ordezkoa: Asier Coloma Ugartemendia.

*Mahaikideak:*

- Titularra: Ainhoa Gainberri Txintxurreta; ordezkoa: Maria Begoña Alkorta Yarza.
- Titularra: Beñat Sardon Quintana; ordezkoa: Ainara Aguirre Jauregui.
- Titularra: Gorka Gorostiza Arbulu; ordezkoa: Alicia Etxeberria Urra. IVAPen ordezkeriak.
- Titularra: Itziar Gallastegi Arregi; ordezkoa: Iratxe Etxeberria Arizmendi. IVAPen ordezkeriak euskara-probetarako.

*Idazkari titularra:* Nerea Ibarrola Urraca; ordezkoa: Iñaki Ibarrola Urraca.

Azken bokala izan ezik, izendatutako gainerakoak Gipuzkoako Foru Aldundiko karrerako funtzionarioak dira, A1 azpitaldekoak, eta haiei dagokie merezimenduak baloratzea.

Ebazpen honen aurka, prozesutik behin betiko baztertutako pertsonak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete zuzenean Administrazioarekiko Auzien Donostiako Epaitegietan, bi hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hala ere, horren aurretik aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio alkate-lehendakariari, argitaratzen den egunaren biharamunetik hasi eta hilabeteko epean. Kasu horretan, ezin izango da administrazioarekiko auzi errekurtsorik jarri berraztertze errekurtsoa berariaz ebatzi arte edo presuntziozko ezespina gertatu arte. Nolanahi ere, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

**DEIALDIA:** ADMINISTRAZIO OROKORRA ESKALAKO ADMINISTRARI LAGUNTZAILE  
AZPIESKALAKO PLAZA IDAZKARITZAKO ADMINISTRARI LAGUNTZAILE LANPOSTUA  
HORNITZEKO

### **I. ERANSKINA:**

**Onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda**

Onartuen zerrenda:

- *Txanda irekia – sarbide orokorra*



ATAUNGO UDALA

2022ILAN0003

<b>NAN DNI</b>	<b>Abizenak eta izena Apellidos y nombre</b>	<b>Auto-balorazioa Auto-valoración</b>	<b>Hizkuntza eskakizuna Perfil lingüístico</b>
72XXX506E	AITZIBER URDANGARIN AIZPURUA	100	3
15XXX511W	JAVIER MUÑOZ MORENO	80	-
72XXX055S	ANDREA ANTON GONZALEZ	24.27372	EGA
72XXX494J	LARRAITZ RODRIGUEZ ZALDUA	20.00	3
73XXX725V	OIHANE GRELA GARCIA	20.00	-
79XXX179P	IDOIA ARRILLAGA ALDALUR	20.00	3

Baztertuen zerrenda:

- Txanda irekia – sarbide orokorra

<b>NAN DNI</b>	<b>Abizenak eta izena Apellidos y nombre</b>	<b>Kanporatzeko arrazoia</b>
44XXX649K	MIREN MUGUERZA ALVAREZ	1

1.- Errorea sinatzerakoan

**OHARRAK:**

- Onarpenen zerrendan agertzeak ez du esan nahi interesdunei aitortzen zaienik hautaketa-prozesuan eskatutako baldintzak betetzen dituztela.
- Auto-balorazioak izangaiak bere eskaeran alegatutako eta auto-baloratutako merezimenduen emaitza baino ez du islatzen. Ez du esan nahi puntuazio hori zuzena denik.

## II. ERANSKINA:


**Parte hartzeko eskaeran alegatutako merezimenduak egiaztatu behar dituzten izangaiak**

<b>NAN DNI</b>	<b>Abizenak eta izena Apellidos y nombre</b>	<b>Auto-balorazioa Auto-valoración</b>	<b>Hizkuntza eskakizuna Perfil lingüístico</b>
72XXX506E	AITZIBER URDANGARIN AIZPURUA	100	3
15XXX511W	JAVIER MUÑOZ MORENO	80	-
72XXX055S	ANDREA ANTON GONZALEZ	24.27372	EGA
72XXX494J	LARRAITZ RODRIGUEZ ZALDUA	20.00	3
73XXX725V	OIHANE GRELA GARCIA	20.00	-
79XXX179P	IDOIA ARRILLAGA ALDALUR	20.00	3



**ATAUNGO UDALA**

2022ILAN0003

Sinatzailea	
	<p>Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen sinesgarritasuna ziurtatzeko jo interneteko orrialde honetara: <a href="https://uzt.gipuzkoa.eus/PortaIV/r/0/15/AAAAAQKKQ.7LfZ">https://uzt.gipuzkoa.eus/PortaIV/r/0/15/AAAAAQKKQ.7LfZ</a></p>